# GEU GASTEIZ

Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria

**6. Zka.** Gasteiz, 1993 Maiatza




## Zigor Enbeita Bertsolaria

## Rikardo Arregi Olerkaria

## PRUDENTZIO DEUNA IRUDITAN




**KOLOREA BEGIRADA BIHURTZEN DA**

**KOLORETAKO LENTE KOSMETIKOAK MENDIA OPTIKAN**

URDINAK, BERDEAK, GRISAK, NABARRAK... KOLOREA BEGIRADA BIHURTZEN DA ZUREGAN IRUDI BERRI BAT AURKITUZ. GRADUATUAK EDO GRADUAZIORIK GABEAK, INORK, EZ DIZKIZU NABARITUKO. ZABAL ITZAZU BEGIAK ESTETIKA BERRIARI.

MENDIA OPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 ( anbulategi aurrean ) GASTEIZ


Fundación Sancho el Sabio Fundazioa




Euskara gure kulturaren oinarria da. Horrexegatik egunez egun aurrera goaz euskara arabar guztion hizkuntza izan dadin.

DIPUTACION FORAL DE ALAVA
DPTO. DE PRESIDENCIA

ARABAKO FORU ALDUNDIA
LEHENDAKARITZA SAILA

EUSKARA AHOTIK AHORA



KOLDO MITXELENA
INSTITUTOA
GASTEIZ

AURREMATRIKULA ZABALIK
MAIATZAREN 13TIK
AURRERA

Eskaera guztiak
onartuko dira.

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

GEU Gasteiz
*Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria*

**1691 Postakutxa GASTEIZ**

***Zuzendaria***
*Joseba Gorostiza*

***Erredakzio-batzordea***
*Iñigo Barruso*
*Xabier Etxaniz*
*Mikel Garmendia*
*Txema Millan*
*Patxi Salaberri*

***Kazetariak***
*Leire Lopez de Aberasturi*
*Inaxio Lopez de Arana*
*Ismael Diaz de Mendibil*
*Olatz Irizar*

***Publizitatea***
*Martin Rezola*

***Maketazioa***
*Blanka Agiriano*
*Alex Badillo*

***Argazkilariak***
*Lukas Etxeberria*
*Joseba Olalde*
*David Aguilar*
*Joseba Unzalu*

***Kolaboratzaileak***
*Agurne Aizpitarte*
*Asier Garro*
*Txipi Ormaetxea*

***GEU elkartearen** babesarekin*

*5.000 Aleko Tirada*

*Lege-Gordailua*
*VI-582/92*

*Inprimategia*
*Gertu Koop. E. (Zubillaga, Onati)*

*GEU GASTEIZek ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzunkizunik*

## Prudentzio Deuna • Estibalizko Ama

# IV. Bertso Saria

Lau geltoki ukitu ditu dagoeneko, 1990.garren urtean martxan jarri zen **«Bertso Trenak»**. Eta geltoki bakoitzean makinista berria aukeratu. Hasierakoan Abel, hurrena Bizkar, gero Rikardo eta aurtengoan Zigor. Lautik lau. Gines liburuan sartzeko haina meritu badala uste dut.

Aurtengo sariari dagokionez bizpahiru hausnarketa egin nahi nituzke: sariketaren oihartzuna batetik, partaidetza hurrena eta antolaketa azkenik.

Salbuespen batzuk aparte, komunikabideek arreta nahiko eskasa izan dute Sari honekiko. Nahitanahiez datorkizu «zazpigarren alaba» burura. Izan ere, non eta Araban, Euskararen egoerarik larriena sufritzen duen gure lurralde honetan behar lukete laguntza eta bultzadarik indartsuena era honetako ekimenek. Bestalde, ez Euskal herriko Bertsolari Elkarteko, ezta Araba-Bizkaia Elkarteko ordezkaritzarik ez genuen finalean ikusi. Tamalgarria benetan!

Partaidetzari dagokionez, arrazoi bat edo beste aitzakituz, igaz izandako batzuk Sariketatik kanpo geratu dira aurtengoan. Hala ere, gazteen gorakada azpimarratuko nuke emaitzarik positiboena bezala. Finala saio bizkorra eta dotorea, gorabeherarik gabekoa izan genuen, baina Oihane Pereak eta Dani Kastañok bete zuten lana aipagarria dala uste dut. Bagenekien Serapiok edo Rikardok edo Zigorrek saio ona egin zezaketela eta gertatu ere hala gertatu zen, baina 15 eta 18 urte edukita, hauek egindako lanarekin gustora gelditu ginan.

Bestalde antolaketa berplanteatu beharra dagoela uste dut. Ezin daiteke lan guztia bi pertsonen bizkarrera bota, horrela eta izan diran bezala, akatsak izateko arriskua baitago. Era honetako Sari bat antolatzeak merezi duen ala ez aztertu beharko litzateke eta hala balitz —nere iritzian ez dago dudarik— Arabako bi Eskolen partaidetza osoa beharko luke, Sariari merezi duen garrantzi guztia emanez. Datorren urean ikusiko! Aurtengoz zorionak partaide eta antolatzaile guztioi.

*Abel Enbeita.*

✂·····································································

**Aldizkari hau dohain, debalde, banatzen da. Jaso nahi baduzu bete ohar hau eta bidali 1691 posta kutxara**

**GEU GASTEIZ ALDIZKARIA ETXEAN DOHAIN JASO NAHI DUT**

IZENA:....................................................................................................

DEITURAK: ..............................................................................................

KALEA:........................................... Zenb.:.....................Pisua: ............

Kode postala:............................

HERRIA:...................................................................................................

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



## DANI KASTAÑO

### Gasteizen zer egin

**I**

Nora joanik bada Gasteizen
goizez etxetik irtenez.
Museo ederrak baditugu guk
«Guggenhein»-aren baimenez
Alde berderik? Sobran dauzkagu!
Hemen Amazonian lez!
Monumentorik? Zertan mintzatu
Alde Zahar ta Katedralez!
Gure inbiritan egongo dira
Roma, Paris eta Londres.

**II**

Gauean ere irten liteke
baldin badago indarrik:
Kutxin ta Zapan aukera ematen
hainbat txoko aipagarrik.
denetik dago, pijo kutsua
edota kutre xamarrik.
Giro ta martxa hauekin noski
ez dago esan beharrik:
Hemen Gasteizen aspertzen denak
bere kulpa du bakarrik.

## *Postariak ekarriak*

### Hamairu-hamalau urteko neska-mutilei

KOLDO MITXELENA Institutuko ikasle talde bat gara eta egun hauetan hartu behar duzuen erabaki zailaren aurrean gure esperientziaren laguntza eskaini nahi dizuegu. .

Guk ere bizi izan dugu Eskolan edo Ikastolan bukatu eta hurrengo ikastetxea aukeratu beharreko momentu hori. Orduan galdera bat egin genion geure buruari: hamalau urte euskaraz ikasten aritu eta gero dena egina zegoen, ala jarraitu beharrean geunden? Erantzuna bapatekoa izan zen. Gure hizkuntza euskara zen eta dugun ingurune erdaldun honetan euskaraz mintzatzeko aukera bakarrenetariko bat ikasketan zegoen, beraz, institutu euskaldunera joatea erabaki genuen.

Dagoeneko lau urte daramatzagu institutuan eta egindako lanak merezi duelako ustetan zuek gurekin elkartzera animatu nahi zaituztegu, euskaraz ikasteak bi hizkuntza menperatzea ahalbideratzen duelako, ez bata ez bestea baztertu gabe; gure lau urte hauetako lanak jarraipena izan dezan nahi dugulako eta batez ere hamalau urte horiek ezin dituzulako bapatean ahaztu.

Institutua hemen, zuen zain daukazue, ezin duzue aukera paregabe hau galdu, ez duzue hala uste?

Jakin badakigu zalantza ugari dituzuela; erdaraz errezago ote den... Guk gure esperientziagatik euskaraz ikastea erdaraz bezain erraza edo bezain zaila dela esan ahal dizuegu. Hizkuntza ez da arazoa, benetan! Kontua da norberaren gogoa, estudiatzen ematen diren orduak, etab.

UBI (COU) bukatzen ari gara orain eta euskara eta erdara, biak dakizkigu. Unibertsitatean eta gero lana aurkitzeko laguntza handia izango da hau, noski. Gainera euskaldunak izateaz harro gaude. Orain aukeratu behar izanez gero argi dago zer egingo genuen, ezta?

Esan dizuegunari buruz ongi pentsa ezazue eta ziur egon zaitezkete; zuen erabakia egokiena izango da. Segi euskaraz, merezi du eta!

*Gasteizko* KOLDO MITXELENA
*institutuko ikasle batzuk.*

## HEMEROTEKA

- «Abentura lan bihurtu dut»
  **Eneko Atxa**
  (Belauntziz munduri buelta eman zion laudiotar gaztea)
- «Super 8 lantzen duenak frogatzen du zinema maite duela bideoaren gainetik»
  **Iñaki Dorronsoro**
  («Argazkilariaren begia» erdimetraiaren egilea)
- «Oso aukera haundiak daude Arlauckas traspasatzeko»
  **Joxean Kerejeta**
  (Baskonia saskibaloi taldearen lehendakaria)
- «Aukera zabala du egungo euskal poesiaren irakurleak»
  **Rikardo Arregi**
  («Hari hauskorrak» poema liburuaren egilea)
- «Gasteizko gozogintza ospe handia du estatu osoan»
  **Rosa Maria Hueto**
  (Gozogilea)
- «Latza egiten da kirola eta ikasketak batera eramatea»
  **Hector Llanos**
  (Euskal Herriko Duatloi txapelduna)
- «Gastronomia da jaietako erreferentzigunea»
  **Patxi Anton**
  (San Prudentzio jaietako pregolaria)

GERO GEROKOAK.
**ORAIN**

**EUSKARAZ BIZI!**

aek

Peru kalea, 8 Tfnoa: 22 60 50 • Jose Mardones kalea, 8 Tfnoa: 26 35 40

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Hileko zaporerik onena: Arabako Goxogintza



**Goxogintza ere artea izan daiteke. Joan den hilean Arababako Goxogileen Elkarteak egin zuen erakusketak horrela utzi zuen agerian. Artesautzak eta goxogintzak bat egin zuten benetazko arte-lanak sortuz: ikusgarri eta apetitosoak. Jende asko hurbildu zen bertara, eta irteeran komentario nagusia zen:** *«lastima ezin dastatzea!»*

ELKAR

FAGOR

SUKALDEKO
HALTZARIAK

Manuel Iradier, 37

Tfnoa: 25 45 88

Faxa: 27 81 93

01005 - GASTEIZ

ALBENIZ
MOBILIARIO



Cercas Bajas, 8
Telefonoa eta Faxa 28 74 82
01008 GASTEIZ

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Kalea Mintzo

## Maiatzaren lehena, borroka ala jaieguna?

Jaiegunak beti dira atseginak, politikoak zein erlijiosoak izanda ere. Maiatzaren lehena, halere, bilakaera bitxia jasan du: San Jose eguna, langileon eguna, borroka eguna urte askotan zehar. Zer da gaur egun maiatzaren lehena? Betidanik izan duen kutsua galtzear ote dagoen susmoa argitu nahian kalera atera gara.

*1.- Ospatzen al duzu maiatzaren lehena? Nola?*
*2.- Ba al du zentzurik ospakizun honek?*



**LUIS EGILUZ. (Soldatzailea)**

1.- Bai, jai ematen digute eta.

2.- Langileon lorpen bat izan zen, beraz, gogoan izan behar dugu. Zentzua aldatu egin da: langile kontzientzia galdu egin da; kontsumismoak indibidualistagoak egin gaitu; jendeak ez dauka borrokatzeko gogorik, ez da mugitzen. lehen bezala. Beraz, lehen zuen garrantzia galdu eta jaiegun arrunta bilakatu da. Ea indarberritzen den!

**SILBIA OTXOA. (Ikaslea)**



1.- Ez, inoiz ez.

2.- Esanahia galdu duela esango nuke, jendea gero eta gutxiago mugitzen da, paso egiten du. Gazte jendea istorio horretaz ahaztuta dago; aurreko belaunaldien kontua dela pentsatzen du. Honek ez nau pozten, baina ulertzen dut neurri batean. Dena dela, langile-mugidak hor segiten duelakoan nago, ez dela iraganeko kontua alegia.



**ELIAS HERRERO. (mekanikaria)**

1.- Normalean ez, manifestaldietara ez naiz joaten adibidez.

2.- Jakina. Hala ere, jendearen arteko mesfidantzagatik edo, langileen jai gisa galdu da. Egia esan, neretzat ez du inoz izan zentzu berezirik: frankismo garaiak bizi izan ditut eta orduan «San Jose Artesano» zen. Egun hau beti egon da mozorroturik.

GARNICA
FERRETERIA ETA ETXERAKO TRESNAK
Gorbea kalea 40 • Tfnoa: 24 18 73

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



## JOSE LUIS LEIDA. (Ikaslea)

1.- Bai, manifestapenetara joanez.

2.- Jakina, Dena den, egoera aldatu da: kristo guztiak festa dauka, baina manifara ez doa inor; jaiegun bat gehiago egutegian, «San Jose» eguna izango balitz bezala.

## IMANOL LAGO. (Maestro industriala)



1.- Ez dut ospatzen ezberdindu behar direlako gaurko gizartea kritikatzen duen maiatzaren lehena eta egitarau soil batera mugatzen dena. Gaurregun bigarrena da nagusi.

2.- Orain dela10 urte arte, ikusten zenuen elkarlanaren beharra zenbait aldaketa lortzeko, gero konturatzen zara aldaketa ezinezkoa dela baloreak galdu direlako: balore etiko edo sozialez ari naiz, ez moralez. Kontrakorronte ihardutea alferrikakoa da. Ezker mugimenduan egona naiz eta bere baitan ere galdu egin dira hainbat balore. Inork ez daki zein norabide hartu, ezta zein den helmuga ere.



## ARANTZA MUSITU (Etxekoandrea)

1.- Ez, jai hartzen dut baina ezer berezirik egin gabe.

2.- Baliteke, ez da txarra historia ez ahaztea. Hala ere, niretzat beste jaiegunen jparekoa da. Langileentzat ere jaiegun soila da, arazo edo eskakizunen bat ez badute, behintzat.

## KARLOS TXARRO. (Irakaslea)



1.- Batzutan bai. Manifestapenetara joaten naiz, besterik ez da egiten..

2.- Bai, mantendu beharra dago: esanahi handiko eguna da, zerbaiten adierazle eta gainera, langileok oraindik gauza asko daukagu lortzeko. Bestalde, galtzen ari da bere zentzua, erosotasunagatik, gizartea aldatu delako edo baloreak aldatzen ari direlako. Sindikatuekin ere jendea erre egin da. Adibidez, administrazioarekin eztabaidatzeko zerrenda bat dagoenean beti dago azpijokoa: batetik, langileei egoera bat adierazi eta bestetik, azpitik beste helburu batzuk dituzte.



## ARAZELI MIÑAMBRES. (Langabea)

1.- Bai, manifestapenetara joanez.

2.- Bai, langileak egoera larrian daude eta hori gogoratu behar da urtean behin izanda ere. Hainbat jendek ospatu arren, gehienentzat jaiegun arrunta da eta zubirik baldin badago kanpora ateratzen dira denetaz paso eginez. Elkartasuna galtzen ari da; lagun urkoaz ez gara arduratzen, oso gurekoiak bihurtzen ari gara.

**ikusgarri**

**t i n t a t e g i a**

**Alfonbrak, mantak eta edredoiak,narruzko arropak, berokiak eta lumazko arropetan espezializatuak**

DOMINGO BELTRAN, 26 • JUDIZMENDI, 20
TFNOA 14 19 45 • 27 05 83 • GASTEIZ

**Auzoz-auzo, hemen:**

-Ariznabarra: Ocio gaztelua, 21 •Astulezgaztelua, 3
-Sansomendi: Valentin Foronda, 3
-Zaramaga: Zuta, 14 • Nafarrako Erregeak, 56
-Abendaño: Abendaño, 1-37
-Adurza: Nieves Cano, 6 • Pio XII, 5
-Adriano VII, 1
-Pedro Orbea, 2

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Bazenekien...?

... Armentia Arabako herri inportanteenetariko bat izan zela IX. mendetik XII.era bitartean?

... «Armentiensis Episcopus» bezala agertzen direla garai hartako zenbait apezpiku, D. Vela dokumentaturik agertzen den lehena izanik?



... San Prudentzio VII. mende aldera jaio zela?

... Armentiako **Mendibe** auzoan dagoela Arabako patroiarena omen zen jaiotetxea?

... Gaur egun Arabako patroiari eskainitako basilika erromanikoa XII. mende bukaeran eraiki zutela?

... 1970era arte **San Andres** izenaz ezagutzen zela Armentiako basilika?

... 1776an egin ziren berriztapen lanengatik erabat aldaturik gelditu zela eliza?

Bagare EUSKAL ETXEA TOKIA
Kutxileria, 62 - 01001 Gasteiz
945 - 25 10 84

EGIN ZAITEZ BAZKIDE

# Zigor Enbeita

## «Zuen txaloak izan baitira nire egizko txapela»

**Txapela buruan zuela, aitari eskeinia:**

Puntuazio dena entzunik
ustez ametsez naizela
txitximurka ein eskuan eta
ai ba! hau egia dela
ezin sinistu nere burua
dudanik horren epela.
Nori eskaini eta nik hari
tonto nintzake bestela
nere maisuak merezi du ta
berorrek jantzi dezala,
berorrek jantzi dezala



GORETTI
ILEAPAINDEGIA
San Antonio, 29-Behea
Tfno: 13 18 55
01005 - GASTEIZ

Ardatz
itzulpen eta euskara zerbitzuak
Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Prudentzio Deuna eta Estibalizko Ama
# IV. Bertso Saria

## Finalak utzitako zipristinak

Arabako Bertsolaritza, urterik urte goruntz badoa ere, oraindik orain hegalaldi luzeak behar ditu Zaldiaran edota Olarizu mendietan txantxagorrien kantu fina entzun ahal izateko.

Finalean bertsolari batek esandakoa gogora ekarriz «gu gara Arabako plantelik onena, Euskadi mailan gara hutsaren hurrena» abiapuntutzat harturik finalisteen nondik norakoak plazaratuko ditugu:

**Zigor Enbeita:**
Hasieratik bazekien normal xamar arituz gero txapela buruan zuela. Halere, gazte honek gehiago eman behar du. Finalean ez zuen gehiegirik arriskatu, baina hobe oinez eta segurora eta ez zaldiz eta zulora.

**Dani Kastaño:**
Gazte honek sorpresa ederra eman zigun. Ezer galtzekorik eduki ez eta irabazteko asko zuelarik ondo aritu zen bertso bakoitzari punta atereaz. Ondo konbinatzen bertsoen saltsa eta seriotasuna, behar den moduan.

**Rikardo Glz. de Durana:**
Seriotasun osoz aritu zen baina ez zuen eman espero zena. Bertsoak ondo osatu arren saltsa falta zitzaion.

**Serapio Lopez:**
Ilegorria beti bezala aritu zen. Hor dago betiere, baina azken saltoaren faltan. Ateraldi bitxiak baina irregularra.

**Oihane Perea:**
Txukun aritu zen.Dena den, plaza falta nabaritu zitzaion. Promesa ederra bada ere, Euskal Herriko beste bertsolari gazteekin ari beharko luke.

**Xabier Riko:**
Saltsa eta ateraldi bitxiak. Askoz lasaiago ibiltzen da berak gaiak aukeratzen dituenean. Libre hobeto aritzen den bertsolaria dugu.

## FINALEKO BERTSOLARIAK


Zigor Enbeita


Dani Kastaño


Rikardo Glz de Durana


Serapio Lopez


Xabier Riko


Oihane Perea

HADE EUSKALTEGIA

Elvira Zulueta, 4 (Prado parkearen ondoan ) • Tfnoa:23 09 44 GASTEIZ

GILTZA ARABA
ZERRAILDEGIA
LARRIUNETARAKO ZERBITZUAK 24 ORDUZ
zerrailak, giltzak, ateak kotxeak...
Tfnoa: 945-26 57 29
Jose Mardones, 7
01004 GASTEIZ

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Zigor Enbeita, aitaren urratsen atzetik



**Zer nolako maila izan du zuk irabazi duzun Prudentzio Deuna IV. Bertso Sariak?**

Itxuraz maila gutxiago izan behar zuen aurten iazko bi finalista falta zirelako. Hala ere finala ikusita maila hobeagoa egon dela nabaria da. Gainera iaz txapeldun eta txapeldun ordea izan ziren Rikardo Gonzalez de Durana eta Serapio Lopez hirugarren eta laugarren izan dira aurten, horrek pixkanaka maila igotzen doala esan nahi du.

**Horren erru gehiena bertsolari gazteek izan al duzue?**

Aurten hiru gazte egon gara finalean eta bat aipatzekotan Ohiane Perearen lana aipatu behar da. Hamabost urte ditu eta oso finale ona egin zuen. Txapelketaren gauzarik onenak Ohianek iaztik hona izan duen gorakada eta Dani Kastañosen bigarren postua izna dira.

Nik gehiago eman nezakeen egia esateko, ez naiz nik nahi nuen mailan egon baina hala ere pozik nago.

**Bertsolari gazteen lanaz hitz egitean Bertsolaritza eskola nahitaezko abiapuntua da.**

Ohiane Perearen kasuan behintzat bai, hasieratik eskolan egon bait da. Dani Kastañosek bere kabuz ikasi zuen bertsotan eta Eskolan bere bertsolaritza hobetu zuen. Horrela da, hortik atera dira gazteak ez dago beste lekurik.

**Zein da orokorrean Arabako Bertsolaritzaren egoera?**

Momentuz Euskadiko txarrena da eta hori esan behar da, ez dago beste erremediorik. Baina hala eta guztiz ere, hobetzen doa eta gaur egun oraindik ez gara Nafarroaren mailara iritsi baina gutxi falta zaigu. Gainera orain bertsolari gazteak ateratzen ari dira eta hori da gure itxaropena eta gure etorkizuna.

**Zuk ez zenuen esperientzia falta somatu finalean, baina oro har esperientzia hartzeko haina plaza egiteko aukera izaten duzue?**

Nik ez dut esperientzia falta, hamahiru urteetatik nago plazetan. Baina Arabako bertsolariok ez dugu plaza askorik egiten. Sari honetan irabazle irtetzen denak aukera gehiago izaten ditu. Beraz, gehiago deituko didateko espero dut baina ez dakit.

**Zure aitari, hau da, Abel Enbeitari, eskaini zenion lortutako txapela.**

Berak sartu ninduen bertsolaritzan. Aita bertsotan egitera joatzen zenean ni bera entzutera joaten nintzen. Gero Bertso Eskolan bera izn zen maixua eta ni bere ikaslea. Nere maixua izan da, normala da txapela berari eskaintzea.




zalu
FOTOKOPIAK
Berehalaxe!!
Prado 20
Tfnoa: 945-288248 • Faxa: 945-253291

Cerveceria Alemana
SALTXITXAK
KAZOLATXOAK
SANDWICHAK
Gerardo Armesto, 3 • (Gasteiz etorbidearen ondoan) Tfnoa: 13 29 88 • GASTEIZ


Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Finalean entzundako bertsoak:

### Gartzelako gaia:

Gaur jakin duzunez, gurasotzat izan dituzunak ez dira zure benetako gurasoak.

### Dani:

Hezitzearren bota dituzte
ez dakit zenbat ahalegin
Zaintzen ninduten, beti beti ere
maitasun handiarekin
beraiengandik jasoak ditut
makinatxo bat etekin
orain sorpresa horrekin
ez dut hartu hainbeste min
ez dut hartu hainbeste min.
Benetakoak ez dira hauek
nonbait hau ukatu ezin
baina hori niri ez zait inporta
nik maite baititut berdin
nik maite baititut berdin.

### Zigor:

Gurekin pasa ondoren nik neuk
hogeitabi urte bete
ez al duzue nere guraso
benetan gaur ez zerate
nahiz eta hori sarri askotan
izan leike nire kalte
zuek gaur trankil, ez da apurtu
gure arteko hainbat kate
bene-benetan aita ta ama
zuek bait zaituztet maite
zuke bait zaituzte maite

**Gaia:** Zuek, Zigor eta Oihane, anai- arrebak zarete. Zuen gurasoak banatzea erabaki dute. Nor aitarekin eta nor amarekin joan?

### Zigor:

Arreba gaur aita ta ama
daude separatu asmoz
ez dit eragin erabakia
nik nuen beste hainbat poz
bera, hara hor, ene arreba
nago hau nik esan gogoz
berdit zait aita edota ama
zuk nerekin gaur bazatoz

### Ohiane:

Hara horren nagisia ta
zuk duzu bai osasuna
zu zara nere anaia ta
zu zara nire laguna
Onartzen dut bai ederto dago
zu orain esan duzuna
izan ere zu anaia zara
ni zaindu behar nauzuna

**Gaia:** Zuek biok, Serapio eta Zigor, zirugia egitera joan zarete. Honen sudurra (Serapiorena) zuri jarri eta zure belarriak Serapiori.

### Serapio:

Zirugia egiten
joan gara propio
eta egin digutena
ote du balio
Zure belarri handiak
direla medio
orain deituko didate
Dunbo Serapio

### Zigor:

Antza jarri digute
bioi bengantza
Ez da neurtu ondo
behar zen balantza
parte onena, hala ere
dator niganantza
orain gutxienez dut
Marinoren antza.

### Oinak:

moda • ganora
denbora • lora

### Xabier:

Nahiz ta alferrik ez pasa
urte ta denbora
jantzi kontu horretan
non dago ganora?
Aldakorra omen da
askotan be moda
hirurogeitakoa
berriz zaigu lora.

### Azken puntua:

Zuekin pozik bizi naiz baina
daukat aldendu beharra.

### Rikardo:

Zuen artean bertsotan egin
parranda ta hainbat farra.
Ez pentsa gero guzti horixe
denikan batere txarra
baina oraindik Euskal Herria
askatzeko behar indarra
Zuekin pozik bizi naiz baina
daukat aldendu beharra.

**GASTEIZ** euskaltegia
Errege katolikoak, 15-C.
Tfnoa: 28 89 22
**PINTO** euskaltegia
Pintoreria 74.
Tfnoa: 28 97 80
**ZALDIARAN** euskaltegia
Zaldiaran Plaza, 16.
Tfnoa: 24 49 05

EUSKARAZ

ika

JANTZIAGO EUSKALDUNAGO

# Rikardo Arregi
# Olerkiaren bidean

**«Hari hauskorrak» Rikardo Arregi olerkigile gasteiztarrak argitaratu berri duen liburua da. Hau argitaratzen duen lehen liburua izan arren gaztetan hasi zen idazten baina lehenago ez badu ezer argitaratu beldurra ematen ziolako da. Hala ere, hau pasa eta gero olerkigintzan lan egiten jarraituko duela ziurtatzen du.**



zure euskal
LIBURUDENDA
Plaza Berria, 14
Virgen Blanca, 1
Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ
Zerrikoia

HEGOALDE
euskaltegia.
Florida 58, behea. Tfnoa. 284196 - 01005 GASTEIZ

# «Nik suerte izan dudala esan behar dut»



**Nola definituko zenuke argitaratu berri duzun liburua?**

"Hari hauskorrak" bost ataletan banatuta dago. Lehenengo atalak "Ezpata herdoilduak" izena du eta denborari buruz hitz egiten du. Atal hau liburuaren zatirik itxiena da, irakurtzeko zailena ziurrenik. Bigarren atalean amodio eta desirari buruzko poemak bildu ditut. Hirugarrenaren izena "Sibila" da eta poema txikiak eta ironikoak daude bertan. "Arbasoak" da azkenaurreko atala eta gustatzen zaizkida poeta eta musikarien lanak agertzen dira. Azkenengoan egunerokotasunarekin loturik dauden gaiak sartu ditut.

Dena den banaketa hau argi dagoen arren ez dakit atal bakoitzean gai bat lantzen dela esan daitekeen. Laugarren ataleko gaia argi dago, Leizarraga, Cernuda eta atsegin ditudan beste poeta batzuren lanak agertzen dira. Eta bigarren ataleko gaia ere zehatza da baina besteetan ez da hau horren argi ikusten.

**Olerki hauek idazten hasi zinenean liburu bat egiteko asmoa zenuen?**

Aurretik zerbait eginda neukan baina hala ere olerkiak liburu bat osatzeko asmoz idatzi nituen. Titulo baten azpian bost atal eta atal bakoitzaren barruan gai bati buruz idaztea bururatu zitzaidan eta gero lana osatu nuen.

**Olerkia errentagarritasun gutxien ematen duen literatur jeneroa da. Arazoak izan al zenituen liburua argitaratzeko?**

Olerkiak ez direla errentagarriak esaten dute. Dena den, nik suertea izan dudala esan behar dut. Beka bat lortu nuen eta gainera liburua irakurri zuen lagun batek lagundu ninduen. Hala ere, argitaratuko zutela esan zidatenetik argitara eman zuten arte denbora asko pasa zen. Izan ere olerki liburuak argitaratzea errentagarria izateko salmenta asko duten liburuak argitaratu behar dira.

Olerki liburuak garrantzitsua dira dena den. Andu Lertxundik euskal irakurlegoa neurtzeko modurik onena poesia salmentak ikustea dela dio. Izan ere, nobelak euskaltegi eta institutoetako irakasleek hala aginduta erosi eta irakurtzen dira sarri askotan.

**Hau argitaratzen duzun lehenengo liburua da, zergatik itxoin duzu horren beste?**

Beldurra nuelako. Nere lana ez zela horren ona uste nuen eta bigarren eritzi baten beharra izan nuen hortaz ohartzeko.

**Olerkiak idazteko zen da beharrezkoagoa inspirazioa ala lana?**

Biak behar dira. Egia esateko ez dakit inspirazioa zer den; jendeak inspirazioaz hitz egiten duenean zer esan nahi duen susma dezaket baina... Egia da gauzak bururatzen zaizkizula baina horri forma eman behar zaio, landu egin behar da.

### Phartitzeko Tenorea 1

Goiztirian hodeiez ederreztaturik
lema hartuko duzu
Korinthotik hastanduz betirako.
Laztanen nahia zein ilargik
du piztuko zure azalean,
haragiaren desira zein eskuk
asetuko?
Malkozko murrailen alboan
izkiriatzen ditut poemak
zeure adatsean.

Rikardo Arregi

axular
LIBURUDENDA
Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ

KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
MARRAZKIAK
zurbeltz
MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Prudentzio Deuna eta Estibalizko ama *Araba jaietan*



**Armentiako zelaiak txikiak gelditu ziren bertaratu zen jendeari harrera egiteko. Eguraldiak gehiegi lagundu ez bazuen ere, milaka pertsona bildu ziren Udaberriko jai hau ospatzeko. Barraskilo, perretxiko eta abarrekoak lagun, giro ezin hobea ikusi ahal izan genuena. Arabarrok, ohiturari jarraituz aurten ere aldapari ekin zioten goizen goizetik, bertan eguna pasatzeko asmoz. Ondorengo orrialdeetan irudiei utziko diegu lekua.**

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

















## ERRETRETA

**Txun-txunarekin
turuten doinua
Gure zaindariaren eguna (bi aldiz)**

**Arabatarrak egun honetan
elkartzen dira alaitasunez
ospatutzeko Prudentzio jaiak
gure patroi haundia.**

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa















Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

Egurrezko jostailuak

Didaktika - materiala

Albeniz

Opariak

*Benito Ginea, 2*
*Tfnoa:25•75•14*
*GASTEIZ*







# ANTZERKIA

## «Lastozko ilusioak»

## Xirrika Taldea

## Maiatzak 19

Beñat Etxepare Aretoan
8etan



**Antolatzaileak:**
GASTEIZKO UDALA

GEU Elkartea, AEK, IKA, Bagare, Magisteritza Eskola, HABE, Hegoalde, Irale, Udaberria, Bertso Eskola, Koldo Mitxelena institutoa eta Euskal Herrian Euskaraz

**Erretreta, danborrada, erromeria, Estibalizko ama, Prudentzio Deuna,... pasa dira dagoeneko. Argazkietan ikusi duzuenez giro ezin hobea aurkitu dugu antolatutako ekitaldi guztietan. Laster etorriko zaizkigu beste jaiak. Bitartean ondo pasa!**

# HONTZA

## Gazte-musika

### JAZZa Gasteizen: errealitatea ala eskaparatea



Pozaren pozez egon behar dugu, zienz, hementxe Gasteizen urteroko udara partean garrantzitusa eta itzela izaten den Jazz-jaialdia burutzen baita.

Praketan ere ez gara sartzen, Miles Davis-ek edota Bobby McFerrin polifazetikoak Mendizorrotzako gauetan dagokien tokia izaten dutela pentsatzen dugunean. Hala ere, zalantzak harrapatzen gaitu gure hiriko benetazko errealitate musikala hauxe den planteiatzen dugunean. Dena dela, begiak ixtea nahiago izaten dugu, eta era berean konforme eta ikaraturik egoten gara horrenbesteko kategoria duten kontzertuak mantentzearen ideiarekin.

Gasteizko kaleetan zehar miatuz gero, nekez topatuko dugu udako gauak betetzen dituen musika mota honetaz disfrutatzeko tokiren bat. «Lehenago bazegoen jazz ona dastatu ahal izateko holako lokal bat » dioskute, «baina apika, ez zen nahiko interesgarria ekonomikoki mantendu eta aurrera atera ahal izateko» Ze pena!

Ez dezagun pentsa baina, New Orleans-eko soinu musikal hauekiko zaletasuna uztailaren aste berezi honetan bukatzen zaigunik. Urtean zehar ere, beste zenbait tokik hutsunetxo bat dedikatzen diote ezaguna edota ezezaguna dugun talderen bati; jakina, arlo kultural minoritarioa izanik, urria izaten da ere honelakoetara gerturatzen den lagun kopurua. Ze pena! ostera ere.

Badirudi inork ez duela ezbaian jartzen nimoriendako estilo musikal baten aurrean aurkitzen garenik. Hauxe onartuz, zer gertatzen da beroaren ailegaerarekin horrenbeste musikazale Mendizorrotzako polikiroldegiaren alboan pilatzeko? akaso, bakarrik izen ezagunek erakartzen gaituzte? Beharbada baieztatu behar dugu «bigarren mailako» saioetara zenbat jazz-zale joan ohi den aintzat hartzen badugu. Oraindik gogoan daukagu Sting-en agerraldia zela eta ez zela, eta honekin sortu zen nahastea. Baina, noraino sartzen ote da musikari hau daukagun jazz-musikaren ereduan?

Itxi ditzagun begiak atzera ere, eta imajina dezagun gure festibala ez dela bakarrik zenbait sasi-intelektualentzako erreklamoa, lantzean behin ahoa zabaltzeko eta aurreneko aulki-lerroak okupatzeko espektakulu «chic» eta «aparente» baten aintzinean. Izan gaitezen baikor eta onar dezagun honelako aste kulturala, berezia nahiz magikoa daukagula desio musikal xarmantaren txoriak oraindik ere gure buruaren inguruan bueltaka dabiltzalako.

Joxemari/Txabi Arnal Gil

## LIBURUAK




### «Hari Hauskorrak»

Erein argitaletxea
Rikardo Arregi Diaz de Heredia.

Rikardoren lehen olerki liburua dugu honako hau. Gasteizen jaio zen eta egun batxilergoko irakasle dugu.




### Arabako Gastronomia aldizkaria

Arabako Foru Aldundia • Kultura eta Nekazaritza Sailak - 36. orrialde.

Bigarren alea dugu honako hau, Patxi Antonek zuzentzen duen aldizkari hau, Gasteizko jaietan kaleratuko da berriro. Aldizkarian zenbait gai jorratzen da. Besteak beste, Errioxako ardoa, gasteizko danborrada,...




### «La Ilustración artistica en el Pais Vasco»

Azterlanak bilduma.
Arabako Foru Aldundia • Kultura Saila
Egilea: Mariano J. Ruiz de Ael.

Euskal Herriaren Adiskideen elkartearen bidez plazaratu egin da arte inguruko liburu hau.


ONAINDIA
garraioak
Denerako prest
Tfnoa: 908 - 67 34 77 •ARABA


LARRUKI
Larruaren
Artisautza
KANPOKO ARTISAUTZA, BITXIKERIAK
Kutxilleria, 26
Tfnoa: 28 38 86
01001-GASTEIZ

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# hAurRAK

## Euskara gure hitzetan zergatik ez?

Kaixo! Naiara dut izena eta 14 urteko neska gasteiztarra naiz.

Lehengo eta behin nere gaiarekin sartu baino lehen eskerrak eman behar dizkizuet aldizkari honen partaideei nere gutuna publikatzeagatik eta aldizkari bat guztiz euskaraz egiteagatik. Eta orain nire gaiarekin noa. Zergaitik euskaldunen ezpainetan ez da euskara entzuten? Ez pentsa hau esateagatik asko dakidala, ez! bakarrik nire iritzia ematen ari naiz. Nire ustez aldizkari hau bezalako gehiago sortu behar ziren eta euskararen arauak aldatu eta gogorragoak jarri. Nik nire lagunekin euskara erabiltzen dut ahal dudan guztia eta orain lehen baino askoz gehiagoa, bure hizkuntza berrartu, berpiztu eta bizkortu behar dugulako eta guzti hori Euskadiren menpe dago. Nire gurasoek, adibidez, ez dakite euskaraz eta txikitataik erdaraz egun dudalako agian orain errazagoa egiten zait gaztelaniaz hitzegitea euskaraz baino. Baina hemendik aurrera euskara askoz gehiago hitzegiten saiatuko naiz. Hitz ematen dizuet. Bukatzeko hau esaten dizuet:

Gora Euskadi eta Gora euskaraz mintzetzen direnak!

*Naiara Alarcia*

Euska Herria baduzue maitatzen
agertu ezazue **euskaraz** mintzatzen.

Guri kontatzeko zerbait duzula?
Zure ipuin bat? Idazlana? Poesi bat?
Komiki politak dauzkazula kajoian?
BIDALI GEU GASTEIZera eta aldizkarian aterako ditugul

**GEU GASTEIZ**
**1691 postakutxa. Gasteiz**

## Esaera zaharrekin bueltaka

**Ondorengo hamar esaera zaharretatik hiru ez dira zaharrak. Ba al dakizu zeintzu diren?**

(erantzuna: 3,4 eta 7)

**1-** Orain oraingo eta gero geroko.
**2-** Amen, zu hor eta ni hemen.
**3-** Kotxe onena, bi oin dituena.
**4-** Dagoenean bonbon, jan eta egin on.
**5-** Edur-urte, gari-urte.
**6-** Katu maukaria ez da izango ehiztaria.
**7-** Lehenik jan, gero joan.
**8-** Gaizki jan eta gaizki lan.
**9-** Eguerdiko euria, egun guztiko euria.
**10-** Gurasoak nolakoak, umeak halakoak.

GEU GASTEIZ
5.000 etxetan

isis
OPARIAK • KERAMIKA ARTISAUTZA
AVDA GASTEIZ, 7 • Tfnoa: 14 19 27

den-dan
haltzariak
Gerardo Armesto, 2 • Tfnoa: 24 38 49
01008 GASTEIZ

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

hAurRAK

# Ezagutzen al dituzu?



**Zein da Bernardo Atxaga idazlearen benetako izena?**

- *Joxemari Iturralde*
- *Joseba Irazu*
- *Bernardo Garikano*



**Zein da Gasteizko alkatearen izena?**

- *Luis Angel*
- *Alberto*
- *Jose Angel*



**Zein da Zeledonen benetako izena?**

- *Iñaki Landa*
- *Vicente Díaz de Guereñu*
- *Mikel Lizarralde.*



**Nola esaten diote Jokin Larrañaga pilotariari?**

- *Piztixe*
- *Eskuluze*
- *Larra*

(erantzunak: Joseba Irazu, Jose Angel, Piztixe, Iñaki Landa.)

Haurgailuak
Opariak
Rioja 22 • Tfnoa: 27 47 51
GASTEIZ

ditare
MIHISEDENDA
UME ETA EMAKUMEENTZAKO
LENTZERIA ETA BARRUKO ARROPAK
Cruz Blanca, 13 • GASTEIZ

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

## hAurRAk

### Ipuina

# Harria sutan

Txaratxipi izeneko auzoan agure bat bizi zen bakar bakarrik..

Zumezko saskiak eta kalamuzko oinetakoak egiten zituen. Gero, auzotarrei ematen zizkien dohanik. Norbaitek ordaindu egin nahi ziola esaten bazion haserretu egiten zen. Auzoko baratzeak zainduz irabazten zuen eguneroko ogia.

Agure hau kanpoherri urrutiren batetik etorria zen eta inoiz ez zuen bere bizitzaz hitzik egiten.

Inoiz ez zion inork horrelakorik galdetzen: «Betidanik al zara hain zaharra?», ezta honako beste hau ere: «Betidanik al zara hain itsusia?».

Agurea konkorturik ibili ohi zen beti eta herren egiten zuen hanka batetatik. Bakan eta zuri zeukan buruko ilea. Orbain batek zeharkatzen zion masaila alderik alde. Sudurra erabat okerturik. Goiko hortzak galta zitzaizkion eta barre egiten zuenean leiho baten antza hartzen zuen bere ahoak






Askatasun eta bizitzari buruzko erreflexio batera eramaten gaitu Eduardo Galeano idazlearen liburu honek. Askatasunaren prezioa ondo ezagutzen du hainbat urtetan herbesteraturik bizi izan den idazleak. Montevideon 1940an jaiotako idazle honek liburu asko idatzi arren, hau da haurrentzat egin zuen lehenengoa. Euskaraz duela hamar urte argitaratu zen Joxantonio Ormazabalek itzuli zuelarik.

Anekdota sinple batean oinarriturik, gazte bihurtzeko posibilitatea, liburua norberaren bizitzaz eta bere buruarekin gustora bizitzearen garrantziaz ari da. Edizio oso zainduan, Luis de Horma ilustratzaile ezagunaren koloretako margoekin, azal gogorra eta hizki handiz idatzita. Liburu erakargarria, ez bakarrik mezuagatik, kontaketa goxo eta maitakorragatik, baita edizioagatik, Elkar argitaletxeak kaleratu zuen hau.

MOBILIARIO kide
apaindura
Cercas Bajas, 27 • Tfnoa: 14 41 95 • 01008 - GASTEIZ-

UDABERRIA
elkartea
•Euskaltegi Homologatua
-Helduentzat
-Ume eta gaztetxoentzat
•Musika eskola
•Dantza
Uruguay, 9 •Tfnoa: 24 49 65
Abendaño 48 • Tfnoa: 22 63 12
GASTEIZ

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# KIROLAK

## Pedro Añarbe, gure burdin gizona.



Ametsak, ametsak besterik ez dira, baina demagun...Kirola egin nahi dugun egun batean Gasteizetik irten eta Urbinaraino abiatzen gara korrika egiten (12 km.), hemen txirringa hartu eta 35 km. betetzen ditugu. Honetarako, Durangorako bidetik jo dugu eta Gorospe anaiak jaio ziren herrian gara dagoeneko, Mañarian alegia. Bira egin eta, betebeharrekoa bukatzeko, azken 12 kilometroak eskiez izango dira, Urkiolan elurra egiten duen egun bat aukeratu beharko dugu, honetan aldapan gora izango bait da lana. Guzti hau betetzeko gai baldin bazara, hiru aldiz Estatuko neguko triatloi txapelduna izan den Pedro Añarbe bidaikide izango duzu.

ANBOTO
TABERNA - JATETXEA
EGUNEKO MENUA
Kutxilleria, 29 - Tfnoa. 25 00 93 - 01001 GASTEIZ

MUGA
Noresta
MENDIA, ESKALADA ETA BIDAIETARAKO MATERIALEA.
LIBURUDENDA ESPEZIALIZATUA.
Plaza Nueva, 3
Tfnoa: 14 63 25 • 23 05 57
GASTEIZ
Paulino Caballero, 41
Tfnoa: 15 14 26
IRUÑEA

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# «Txirindulariak izan garenok ez dakigu korrrika egiten»

**N**eguko triatloia udakoaren anai txikia da. Kirol honen abiapuntua Hawain aurkitzen dugu orain 20 bat urte. Han burutik jota zeuden lau itsasgizon yankek kirol berri bat asmatzea erabaki zuten. Gaur egun ere, triatloiaren seaska den Hawain ospatzen da frogarik ezagunena, "Iron man"(Burdin gizona) hain zuzen. Izenik aproposena da hau, kirolarien lana 42 kilometrotako marathon bat, 180 km. txirringaz eta lau kilometro igeri egiten bait da. Hemen maila txikiago batetan Pedro Añarbe dugu txapeldun.




Pedro Añarberen esanetan neguko triatloiaren jaiotza argi dago, «hemen edota Pirinioetan uretan sartzea ezinezkoa da negu gorrian. Ikusi bestela, nola dagoen urtegia egun hauetan...je, je». Hitzak berak argitzen digunez, hiru kirolek osatzen dute neguko triatloia, eskia, txirindularitza eta atletismoa. Udan igeriketak eskiari lekua kentzen dio.

Gure elkarrizketatua hiru aldiz Estatu espainoleko txapelduna izan da. Hala ere, helburu hori lortzeko bidea ez da arrunta izan. Txirindularitzan adibidez, oso berandu hasi zen, afizionatu mailan hain zuzen. 15 urte bete arte, kirol gimnasia egiten aritu zen, baina asteburuetan Candanchuko beste eskialari bat bihurtzen zen. Han lana aurkitu zuen eta eski estazioaren monitorea izan zen zortzi urtetan, «neguan eskiari ematen nion bitartean, udan txirringaz ibiltzen nintzen. Orain berriz, aste bat hemen eta beste bat han ematen ditut.» Gauzak honela, eskia eta txirringak ez dute sekreturik berarentzat, baina atletismoak lan gehiago ematen dio, «txirindulariak izan garenok ez dakigu korrika egiten» luzatzen digu Añarbek.

Triatloi lehiaketetan guztiok ezagutzen ditugun txirindulariek parte hartu dute orain urte batzuk, horra hor esaterako, Peio Ruiz Cabestany, Pedro Delgado

arcaya
Portal de Villarreal, 22-24
Tfnoa: 26 06 58
Portal del Rey, 21
Tfnoa: 28 08 69
SOINUA
IRUDIA
ARGIZTAPENA
ELKTRAGAILUAK
OPARIGAIAK

Huluma
MASAIA - QUIROMASAIA
*Kote Zubizarreta*
Olagibel, 20 •Telefonoa 25 92 06

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

edo Marino Lejarreta. 27 urtetako gasteiztar honek guzti hauek gainditu ditu behin baino gehiagotan. Txapelduna Pedro Añarbe zen, baina egunkarietako argazkiak "izar" hauek bereganatzen zituzten. Honi buruz galdetu diogunean, «lasai! ohituta nago» gaineratu digu.

Pedro Arabako triatloiaren aintzindaria izan da zalantzarik gabe, hala ere berak irekitako bideak eduki ditu jarraitzaileak. Azken hauen artean, Hector LLanos gaztea aipatu beharra dago, Añarbek etorkizun ona aurrikusten dio LLanosi, «oso gaztea izan arren, Euskadiko duatloi txapelketa irabazi du dagoeneko. Txapeldun handia izango dela uste dut.» Honekin batera, Gasteizko harrobia bere fruituak ateratzen hasia da eta "Judizmendi" taldearen lanari esker hamar neska-mutil arabar ibiltzen dira txapelketaz txapelketa.

Pedro Añarberen etxea argazki, sari eta egunkarietako artikuluz beteta dago, guztietan noski bera da protagonista. Bere gelan ordea, diploma txiki bati gorde dio lekurik onena, Pedrok berehala azaldu zigun honen gakoa, «Japoniatik deitu ninduten mundu mailako norgehiagoka batetan parte hartzeko. Zazpigarrena iritsi nintzen eta europarren artean hirugarrena. Nire lorpenik handiena izan da.» Aurtengoa aldiz ez da urte ona izan gasteiztarrarentzat, ukaldi batek bere amets guztiak pikutara bidali ditu eta. Hala eta guztiz ere, «datozen urteak hobeak izango dira» esan digu itxaropentsu. Hala bedi.




# Pedro Añarbek gustokoa du...



**1. Kirol bat aukeratzekotan...**

| Eskia | Txirrindularitza | Atletismoa |
|---|---|---|
| ☑ | ☐ | ☐ |

**2. Txirrindulari gogokoena...**

| Indurain | Marino | Untzaga |
|---|---|---|
| ☑ | ☐ | ☐ |

**3.- Zein duzu gustokoen?**

| Alaves-a | Martin Fiz | Baskonia |
|---|---|---|
| ☐ | ☑ | ☐ |

**4. Auto bat erosiz gero...**

| Dyane 6 | «Kakarraldoa» | Audi 100 |
|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☑ |

**5. Jateko orduan...**

| Legatza | Babarrunak | Txuleta |
|---|---|---|
| ☑ | ☐ | ☐ |

**6. Taberna batean...**

| Ardoa | Gin-tonika | Garagardoa |
|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☑ |

**7. Musika kontuan....**

| Scorpions | Mikel Erentxun | Oskorri |
|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☑ |

**8. Mendate bat txirringaz...**

| Herrera | Urkiola | Opakua |
|---|---|---|
| ☐ | ☑ | ☐ |

**9. Emakume kontuan...**

| Ilehoriak | Beltzaranak | Ilegorriak |
|---|---|---|
| ☐ | ☑ | ☐ |

**10. Onena...**

| Chiapucci | Bugno | Indurain |
|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☑ |

ARTEPAN
Artisau
Okindegia eta Goxotegia
Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

AZOKA
deportivos
Zure kirol- oinetakoak
Gorbea 27 tfnoa: 24 22 05
Ariznabarra 17 tfnoa: 14 71 33
GASTEIZ

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

**9** **Kontzertua: Udal Banda**. Eguerdiko 12,30etan Arriagako gizarte-etxean.

**10** **Bideo-hitzaldia: «Patagonia: Argentina eta Txile»** arratsaldeko 5etan Araba Aretoan (Dendaraba)

**13** **Solasaldia:** VillaSusoko Tertuliak. **«Iparraldeko Atenas»**. VillaSuson 8etan.

**14** **Alaitz Abesbatza:** Araba Kultur Aretoan arratsaldeko 8etan.

**16** **Kontzertua**: **Udal Banda**. Eguerdiko 12,30etan Florida parkean.
**Umeentzako Antzerkia: «Kikiricaja»** antzezlana. Paraiso Antzerki-taldea. 6,30etan Principal Antzokian.

**17** **Hitzaldia: «Carlos Saenz de Tejadaren Artegintza-lana»** Hirugarren adinako elkartegiak.

**18** **Ikastaroa: «Jazkeraren historia»** Araba Aretoan 5etan. Hirugarren adinako elkartegiak.

**19** **Antzerkia: «Lastozko ilusioak»** Xirrika taldea. Beñat Etxepare Aretoan 8etan. **EUSKARAZ**
**Mahaingurua:** Arte Eder Museoaren Adiskideen Elkartea. Kultur Etxean 7etan.

**21** **Kontzertua: Euskadiko orkestra sinfonikoa**ren aparteko kontzertua. Principalean, arratsaldeko 7,45etan.
**Samaniego Abesbatza:** Arratsaldeko 8etan Arabako Kultur Aretoan.
**Solasaldiak:** Gastronomia. Kultur Etxean 7etan.

**23** **Umeentzako Antzerkia: «Naftalina»** Pikor Antzerki-taldea. Principal Antzokian arratsaldeko 6,30etan.

**24** **Kontzertua: Pogorelich**. Pianoa. Principal Antzokian 8,30etan.
**Mahaingurua: «Gure auzoko europearrak: Alemania»** Susana Krug • Fridolin Traubinger • Gerardo Ginea. Araba Aretoan (Dendaraba) 5etan. Hirugarren adinako elkartegiak.

**27** **Solasdia:** Villasusoko tertuliak: **«Arratsalde lasaiko hiria»** VillaSuso Jauregian arratsaldeko 8etan.

**28** **Araba Abesbatza:** Arratsaldeko 8etan Araba Kultur Aretoan.
**Zine-Foruma: «El pajaro de la Felicidad»** Pilar Miroren asken fimearen estrenaldia. Guridi Zinemak, arratsaldeko 5etan.

**30** **Kontzertua**: **Udal Banda eta Manuel Iradier Abesbatza**. Eguerdiko 12,30etan Principal Antzokian.
**Umeentzako Antzerkia**: **«Espiritu»**. Arca Antzerki-taldea. Arratsaldeko 6,30etan Principal Antzokian.

**31** **Mahaingurua: «Gure auzoko europearrak: Bretainia Haundia»** Susana Webster • Ana Smith Araba Aretoan (Dendaraba) 5etan.



**...eta gainera:**

**Kultur Etxean**

Arabako mendiei buruzko Hitzaldiak eta bideoak. Hilak 10, 11, 12, 13 eta 14, arratsaldeko 7,30etan.

Arabako Espeologi Taldearen XXX. urteurrena. Hitzaldiak, hilaren 18, 24, 26 eta 28an.

ZAPATEGIA - ARTISAUTZA
ZAPATARI
Herreria, 86 • GASTEIZ

ALISAS
TABERNA
EZ DAGO PINTXORIK
KUTXI • GASTEIZ

ARABAKO ESPERANTO ELKARTEA
ESPERANTO? JES, VOLONTE!
Zapateria, 29 • Tfnoa: 22 05 70

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

Agenda



# Dantza

## Principal Antzokian
## Arratsaldeko 8,30etan

MAIATZA

| | |
|---|---|
| 3 | Salzburg Dance Company «Gala de Solistas» |
| 5 | Ekide |
| 9 | «Jesus Guridi» dantza eskola |
| 13 | Juan Carlos Irizar eta Soraia Dantza Akademika Minerva. |
| 15 | Ananda Dantza. «Borgia imperante» |
| 18 | Dantza-Antzerkia. Carolyn Carlson. «Commedia» |
| 20 | «La Compañia» Ballet gaztea. |
| 22 | Argia Euskal Dantzari Taldea. «Alakiketan» |
| 27 | Antonio Canales-en Ballet Flamenkoa. |

## EUSKARAZKO MEZAK

**Larunbatetan:**
6,30etan El Pilar Elizan
7,30etan Erreparadoretan

**Igandeetan:**
11etan Estibalitzen (ele bietan)
11.30etan Jesus Langile

## ERAKUSKETAK



**Olagibel Aretoan** (Enparantza Berria) 18tik Ekainaren 6a arte. KIROL ARGAZKIAK. II. erakusketa..

**Caruso Kafetegian** (Enrike Eguren 9) FERNANDO LARREA. Akuarelak

**Kultur Etxean** (Florida) 10etik 16ra RINGO JULIAN. 17tik 28ra Arabako Espeologia taldearen XXX. urteurrena dela eta antolaturiko erakusketa.

**Cordon Etxean.** 18tik 31era. «Eskolarteko Komiki-lehiaketa»

**CM2**-en (Araba Jauregia, Herreria 24) 14tik Ekainaren 5a arte. PEDRO GALBAN. Teknika mistoa.

**Trayecto Galerian** (Ramiro de Maeztu 10). Maiatzaren 7tik Ekainaren 19a arte IÑAKI CERRAJERIA. Pintura.

**Amarika Aretoan**, 18a arte, 23a arte, «Hamaika Frantzian». Europear Elkartearen artistak.

**Luis de Ajuria Aretoan** (General Alava 7) 3tik 16ra VICTOR ARRIZABALAGA. Pintura eta eskultura. 18tik 31ra. RAFAEL LAFUENTE. Pintura abstrakto eta geometrikoa.

**San Prudentzio Aretoan** ( San Prudentzio 30) 14tik ekainaren 18ra. SAENZ DE TEJADA. Marrazki eta grabatuak

**Pajarita Aretoan**. 3tik 16ra PILAR LOPEZ DE MUNAIN. Pintura. 18tik 31ra. JAVIER SANAGUSTIN. Pintura.

**Aitor Urdangarin Galerian** (Florida 24), 12a arte MIXTO CEMILLAN. Oleo. 13tik 26ra. JUAN JOSE URRACA. Akuarelak.

**Artelarre Galerian** (San Francisco 18) 4tik 17ra ALFREDO MOMPO. Oleo. 18tik 31ra. JUAN CARRILLO Oleo..

**Araba aretoan** (Independentzia, 3) Arte Ederretako Fakultatea.

"UPELA" MOTRI
SAGARDOTEGIA • ZALDITOKIA
Tfnoa: 908-67 31 08 ALAIZA (Araba)

Chimbo Jatetxea
Cuchilleria, 57 • Tfnoa: 27 28 91
GASTEIZ

JATETXEA
HIRUAK
Kutxilleria, 26 tfnoa: 28 81 47
•GASTEIZ

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# ARABA
## HERRIZ HERRI

**Agurain**
Berekereke Antzerki-taldea: «Diunelirium»
Maiatzak 21, 8etan Kultur Etxean.

**Aramaio**
Gasteizko Trikitixa Eskola
Maiatzak 23, 11etan

**Armiñon**
Erletxo Gaitariak
Maiatzak 15 eguerdiko 1ean Plazan.

**Bastida**
Santa Luziaren erromeria
Izalde trikitixa
Maiatzak 17, goizeko 11etan.

**Beranturi** (Berantevilla)
Gezaltzako Musika-banda
Maiatzak 15, 7etan Plazan.

**Bernedo**
Izalde Trikitixa
Maiatzak 31, goizeko 10,30etan San Tirso baselizan.

**Korro**
Kilkir txaranga
Maiatzak 30, 12etan San Vitores baselizan.

**Dulantzi**
«Quevedos» Magia eta ilusionismoa.
Maiatzak 22, 7,30etan Kultur Etxean.

**Ekora** (Yecora)
Biasteriko Jotariak
Maiatzak 8, 6etan Plazan
Ikuska Txaranga
Maiatzak 15, eguerdiko 12etan Plazan

**Burgelu** (ElBurgo)
Magia eta ilusionismoa
Maiatzak 15, 6etan Gizarte etxean

**Eltziego**
Hitzaldia: «Abentura» Eneko Atxa
Maiatzak 15, 8etan Kultur Etxean.

**Bilar** (Elvillar)
Rock Jaialdia: A la Fuga - De mala fe
Maiatzak 14, gaueko 12,30etan Plazan.

**Gopegi**
Antzerkia: «Vivir del Cuento» Ñake produkzioak.
Maiatzak 16, 6etan Bengolarra Kultura Aretoan.

**Heredia**
Gasteizko Trikitixa eskola
Maiatzak 15, 5etan Plazan

**Kanpetzu**
Magia eta Ilusionismoa: «Quevedos»
Maiatzak 16, 8etan Frontoian
«Tom Sawyer» Samaniego Antzerki-taldea
Maiatzak 21, gaueko 1aetan

**Lagran**
Hitzaldia: «Etnografiaz» Joaquin Jimenez
Maitzak 22, 7etan

**Argantzun**
(Lapuebla de Arganzon)
Biasteriko Jotariak
Maiatzak 15, 6etan Plazan

**Labarka**
Lapuebla de Labarca
Panta Rhei antzerki-taldea, «Mari, Anbotoko dama»
Maitzak 18, 3,30etan Assa ikastolan.
Hitzaldia: «Arabako sukaldaritza» Patxi Anton
Maiatzak 20, 8etan Udal Aretoan
Rock Jaialdia: Tubo Skape - Ironic Cancer Phobia
Maiatzak 21, gaueko 9etan El Plano Plazan.
Gasteizko Trikitixa eskola
Maiatzak 23, 12 etan.
Arabako Dantzarien Biltzarra
Maiatzak 23, eguerdiko ordu batean.

**Laudio**
Hitzaldia: Eneko Atxa
Maiatzak 8, 7etan Centro Gallego-n
Jazz: Bycicle
Maiatzak 21, 7 t'erdietan Kultur Etxean

**Leza**
Biasteriko Jotariak
Maiatzak 15, eguerdiko ordu bat t'erdietan, Plazan

**Luxaondo** (Luyando)
Gasteizko Trikitixa Eskola
Maiatzak 29, 12etan Plazan

**Lanteno** (Llantero)
Ertzantzaren musika-banda
Maiatzak 29, 8etan Elizan.
Menagarai
Abesbatza
Maiatzak 29, 8etan Elizan

**Mandaita** (Montevite)
Eltziegoko gaitariak
Maiatzak 15, 4etan Plazan.

**Moreta** (Moreda)
Organo eta Flauta-Kontzertua: Jose Santos de la Iglesia eta Carlos Rosat
Maiatzak 30, eguerdiko ordu batean, Elizan.

**Murgia**
Gezaltzako Musika-banda
Maiatzak 23, eguerdiko 12etan Oro-n

**Pipaon**
«Chetti anaiak» pailasoak
Maiatzak 12, 8etan Plazan
Hitzaldia: «Abentura» Eneko Atxa
Maiatzak 29, 7,30etan Elkartearen egoitzan

**Pobes**
Biasteriko Jotariak
Maiatzak 16, eguerdiko ordu bat t'erdietan Plazan

**Rivabellosa**
Eltziegoko Gaitariak
Maiatzak 15, eguerdiko 12,30etan Plazan

**Samaniego**
Ezberdinak gaitariak
Maiatzak 15, 12,30etan, Plazan

**San Vicente de Arana**
Izalde Trikitixa
Maiatzak 15, gaueko 9etan Plazan
Biasteriko Jotariak
Maiatzak 30, arratsaldeko 4etan Santa Teodosia Baselizan.

**Santurde**
Gasteizko Trikitixa eskola
Maiatzak 15, eguerdiko 12,30etan.

**Subilana Morillas**
(Subijana de Morillas)
Abesbatza
Maiatzak 16, 12etan elizan.

**Urizaharra** (Peñacerrada)
Izalde Trikitixa
Maiatzak 30, goizeko 10,30etan Plazan

**Zalduondo**
Izalde Trikitixa
Maiatzak 23, goizeko 11etan Plazan

**Zuhatza** (Zuaza)
«Chetti anaiak» pailasoak
Maiatzak 22, 7etan Kultur Etxean

**Zuhatzu Koartango**
(Zuazo de Cuartango)
Antzerkia: «Vivir del cuento» Ñake produkzioak.
Maiatzak 15, 5etan.

**ARABAKO FORU ALDUNDIA. KULTURA SAILA**

EL PARRAL
JATETXEA ERRETEGIA
OKELA ETA ARRAIN ERREAK
Cantòn de San Fco. Javier, 4 • Tfnoa: 27 68 33 • 01001 GASTEIZ-

URTEGI-ALDE
SAGARDOTEGIA
Urrunaga (Araba) Tfnoa: 45 50 67

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# SUKALDE TXOKOTIK




## HEGAZTI ENTSALADA

**Osagaiak**

- •Litro laurden bat mahonesa
- •Dzl. bat tomatea
- •Dzl bat esnegaina
- •Dzl. erdia laranja zukua
- •Dzl. erdia koinaka
- •Dzl. erdia mostaza
- •Piperrauts zuria
- •Oilasko paparra (6 unitate)
- •Uhaza bat
- •2 sagar
- •Laranja zatitua
- •Bi goilarakada almendra
- •Limoi baten zukua
- •Urdaiazpiko egosia

Oilasko paparrak egosten jarri barazkiekin batera. Egosita daudenean hozten utzi.

Saltsa prestatzeko mahonesa, tomatea edo ketchup-a, esnegaina, laranja ura, koinaka, mostaza eta piperrauts zuria nahastuko ditugu.

Plater batean uhaza jarriko dugu eta honen gainean sagarra, oilaskoa eta urdaiazpiko egosia tira luzeetan ebakita. Entsaladaren gainetik limoi ura bota ondoren lehen egindako saltsa erantsiko diogu.

Ondoren platera apainduko dugu laranja zatiak eta almendra hautsa erabiliz.

## OILASKOA SAGARDOTAN

**Osagaiak**

- •Oilaskoa
- •Gatza
- •Piper hautsa
- •Irina
- •Olioa
- •Tipula
- •Sagardoa

Oilaskoa garbitu, lau zatitan banatu, piperraustu, gatza bota, irinetan pasatu eta frijitu.

Lapikoan tipula zatitua biguntzen jarri, kolorea hartzen hasten denean oilaskoa bertara bota. Oilaskoa gorritzen denean sagardoa gehitu. Su txikitan utzi sagardoa urritu eta oilaskoa bigundu arte.

## MARRUBIAK

**Osagaiak**

- •Kilo bat marrubi
- •Kilo bat laranja
- •200. gr. azukre

Hilabete honetan ez dizugu postre konplikaturik azalduko. Hona hemen nola prestatu postre eder bat oso denbora gutxitan eta sasoi honetako fruta bat erabiliz: marrubiak.

Marrubiak garbitzeko kirtena kendu eta ozpin txorrostada batez nahastutako ur hotzetara bota. Ur horretan garbitu eta eskurritu ondo. Ondoren zatiak egin eta ontzi eder batean ipini.

Laranjekin zukua egin eta ondo nahastu azukrearekin. Marrubien ontzira bota eta hozkailuan sartu hoztu dadin





•Egunero makailu gesaldua •Makailua eramateko prest
•36 errezeta ezberdin
ERAMAN ETA JAN
«Kalitatea eta erosotasuna zure esku»
Angulema, 2 - Tfnoa.: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa.: 22 16 36 • Gorbea Merkatua - Zaldiaran - Gasteiz


Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# DENBORAPASA



## ZEHARRETARA

1-Arabako herria; 2-Musika-nota. Metale. Potasioa ; 3-Ez txar. Euskal deitura. Letra izena; 4-Karta astralak. Euskal... abioi-konpainia; 5-Hilobi. Garbitzeko; 6-Irazten dena. Kontsonante bikoitza; 7-Euskal deitura. Kontsonante errepikatua. Fosforoa; 8-Tren-mota. Ardiaren kume; 9-Onartu aditzaren infinitiboa. (Ald.) Musika-tresna; 10-Lehena. Portu. Lore.

## GOITIK BEHERA

1-Garai. Diptongoaren kontrako; 2-Nator lehen aldian; 3-Kontsonantea. Ardaskak; 4-Gasteiz ondoko mendixka. jainko egipziar; 5-Ipotx. Tximiniatik gora.Bokale; 6-Euskal deitura. Musika-nota; 7-Banoa. Aizkora, hitz konposatuetan; 8-Interjekzio. Lehena eta bigarrena. Ibaia busti gabe pasatzeko; 9-Nik hari orain. Molekula-gramoa; 10-Itzal. Bokale.

herenegun
atzo
gaur
bihar
etzi
**etzidamu**

**Zelan dago semea?**

ERANTZUNA:

Gero eta handiago

## SOLUZIOA



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa




# GEU GASTEIZ

**5.000 Etxetan**

**Eskuratu zurea!**

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



# Horiek, agian, ez dute Euskal Hiztegi Entziklopedikoaren beharrik,

## eta zuk?

- Lehenengo Euskal Hiztegi Entziklopedikoa.
- 10.000 euskaldun hitzarturik obra honetan harpidetzaren bitartez.

EZK.

## Super Lehiaketa!

**Geu Gasteiz-ek** lehen euskal Hiztegi Entziklopedikoa zozketatuko du bere irakurleen artean. Hamar liburukik osatzen duten hiztegi honek 100.000 pta inguru balio du.
Sari handi honen zozketan parte hartzeko, galderari zuzen erantzun eta helbide honetara bidal ezazu:

**GEU GASTEIZ**
Posta kutxa: 1691
GASTEIZ

Hemen hilabete honetako galdera:

- **Zein urtetan sortu zen "Ez Dok Amairu" euskal kantari taldea?**

Zozketa uztailean egingo da gure egoitzan. Zorte on!




☐ Obra honi buruz **informazio gehiago** jaso nahi nuke, bestelako konpromezurik gabe.

Izen abizenak ..............................................................................
..............................................................................................
Helbidea ......................................................................................
Herria/Localidad ........................ P.K. ..........................
Lanbidea .....................................................................................
Tel. .............................................................................................

Moztu eta beheko helbidera bidal ezazu.
LUR argitaletxea • Usandizaga kalea,17 • 20.001 - DONOSTIA

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa